

noaua



JONTXU ROCK LARUNBAT HONETAN MIKEL LABOA PLAZAN

Herriko musika talde ugari elkartuko dira Jon Uribe Navarroren heriotzaren 10. urtemugan / 14-15

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

"Inork ez digu argindarraren faktura ulertzeko azalpenik eman" / 06



NOAUA

Urtarrilaren 9an Aginagan izandako lan-istripua salatu dute / 20



NOAUA

Igandean Sutegin, 'Ainbo Amazoniako gerraria' haurrentzako filma / 22

Usurbilen sortutako herri inauteri propioa sustatu nahi dute Orbeldiko kideek / 08



'Herrira begira' gehigarria



Alsazia eta Oihan beltza

IRTEERA 2024ko maiatza

Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaqa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

EPA LASARTE HHI HELDUEN ESKOLA

MATRIKULA ZABALIK

(urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra)

(Hitzordua hartzeko eta argibideetarako 943 37 64 43 - 943 36 66 08)

•**LEHEN HEZKUNTZA:** alfabetizazioa, Historia, Osasuna eta elikadura, Ingelesa eta Espainera.

•**BIGARREN HEZKUNTZA:** DBHko titulua lortzeko moduluak.

•**EUSKARA TAILERRA.**

•**GELA DIGITALAK:** hiritartasun digitalerako tailerrak.



ORUARTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25

OTSAILAREN 7-tik 23-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94

ATE IREKIAK

otsailaren 7an (17:30-18:30)
Landaberri eraikinean



www.oriarte.eus



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92

12-18 urte
DBH-Batzilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
kulturartekotasuna bultzatuz

2024ko Argia Sariak Atxega jauregian banatu zituzten

Argia sarien 35. edizioa izan da aurtengoa. Ehun pertsona baino gehiago bildu ziren Usurbilgo Atxega jauregian.

Hauek izan dira aurtengoan sarituak izan diren egitasmoak:

Ikus-entzunezko saria:
Bizkarsoro, euskal nortasunaren eta euskararen zapalkuntzaz Josu Martinezek zuzendutako filma.

Prentsa saria:
Sahara. Herri baterresistentzian, Mendebaldeko Saharako ga-

tazkari buruz Kristina Berasain Tristanek idatzitako liburua.

Entzunezko saria:
Ez gatoz Paristik, Lanartean elkarteak kulturaz egindako podcasta.

Internet saria:
gordegia.eus, Donostiako Egia auzoko artxibategi grafikoaren egitasmo herrikoia.



Argazkian, aurtren sarituak izan diren protagonistak. ARGAZKIA: ARGIA

Kanpaina onenaren saria:
Guggenheim Urdaibai Stop, Urdaibain eraiki nahi duten

Guggenheim museoaren aurka egindako lanagatik plataformari emandako saria.

Garbigune mugikorra, Kalezarren

Otsailaren 1etik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 8an osteguna, garbigune mugikorra kaxkora eramango dute, Mikel Laboa plazara.

2. Xake Topaketa iragarri dute Sutegi udal liburutegian

Iazko estreinako edizioko arrakastaren ondotik, 2. Xake Topaketa antolatu du Sutegi udal liburutegiak otsailaren 16 (LH 1,2 eta 3 mailakoentzat) eta 23rako (LH 4. mailatik gorakoentzat) 17:00etan liburutegian bertan. Hitzorduotarako izena Sutegin bertan eman beharko da.

'Gazteon Eskutik' ekimenerako bonuak salgai

Martxoaren 29tik 31ra Ernai gazte antolakundeak Lezon antolatu duen 'Gazteon eskutik loratuko da udaberria' ekimenerako hiru egunetarako bonuak salgai jarri dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan; tartean, Usurbilen, Aitzagan hain zuzen, 35 euroren truke.

Sagastien neguko kimaketari buruzko ikastaroa

"Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari" saioa antolatu du Alkartasuna baserri-tarren kooperatibak otsailaren 23rako. Arratsaldeko 15:30etik 18:30era batuko dira Potxoenean. Izena aurrez bideratu beharko da telefonoz (943 361 114) edo alkartasuna.eus web orrialdearen bidez.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOTXEA


Arrakala digitalaz

Azkenaldian, behin baino gehiago gogotan nabarmendu da arrakala digitala nire inguruan. Egoera eta inguru ezberdinetan, pertsona berri zein ezagunekin. Baina teknologia eta sare sozialak beti ahotan. Badirudi gure eskuetatik ihesi doan zaldi bat hezi nahian gabiltzala.

Duela hilabete batzuk artatu ninduten harrera leihatila berdinean, dagoeneko prozedura aldatu dela eta abiatuta nuen kudeaketa, elektronikoki amaitu beharra dudala adierazi dit emakume batek. Nik harriduraz, dokumentu ofizial bat bidali beharra dudala jakinarazi diot, eta azkenean, posta ziurtatuz bidali behar izan dut 70 orrialdeko dokumentua postetxetik. Ahaztua nuen, gutunak nola bidaltzen ziren ere.

Herrian zabaldu beharreko deialdi baten prestaketaren bueltan, kartelak hormetan itsatsi beharra azpimarratzen dute batzuek. Eskola zaharrekoak direla eta beraien tanke-rakoak ere erakarri nahi izanez gero, bide hori baliatu behar dugula halabeharrez.

Posta elektronikoa gain, Whatsappetik ere deialdia egin beharra dagoela, beste zenbaitetik. Instagram kontua zabalteko ideia ere zabaldu da. Eta behin izena izanda, kontua zabaldu eta erreserbatu dugu gure txokoa sarean. Baina gutxi balitz, aplikazio honexek,



"Badirudi gure eskuetatik ihesi doan zaldi bat hezi nahian gabiltzala".

ea Facebook-era ere batu ote nahi dugun galdetu digu. Hurrengo batean izango da.

Hala ere, badakigu bide guztiok urratuagatik, ahoz ahokoa baino gertutasun gehiago nekez lortu dezakegula. Baina batzuetan, egunerokotasunaren zurrumbiloan, bata bestearen jarduna eteteko ere nahiko lan izaten dugu.

Herriko bazter eta inguruak filmatzeko aitzakian, ahaztuak genituen bazterak bisitatu ditugu taldean eta elkarrekin. Autoak aparkatu, kafea hartu eta lehen kokapenerantz jo dugu. Heldu garenerako, eulitzar edo erlauntza baten antzerako zarata nabaritu dugu

"EZER EZ DAGO IDATZITA. GUZTIA ALDIZ, ERABAKITZEKO"

buru gaintan. Mugikorretik agintzen dio gidariak, eskuin-ezker, biratu, igo edo jaitsi. Zeinen txundigarriak diren dronak, gure mesederako baliatzen ditugunean behintzat.

Jaso nuen lehen mugikorrek ez zuen Internetik, eta hala ere belaunaldi *millennialekoa* edo natibo digitala omen naiz. Gure etxean, seme-alabok erakutsi genien gurasoei, lehengusu zaharrenei esker eta eskolan irakatsi zigutenaren bitartez, ordenagailu eta Internetarekin lehen harremanak izaten.

Orain aldiz, gaur egungo gurasoen kontraesana etaburuhausteen mundu mugagabearen atarian gaude. Ezjakintasuna, beldurra eta gu baino askoz errazago, edo agian, goizago ikasteko aukera izan duten ume eta nerabeak ditugu aurrez aurre. Eta ezer ez dago idatzita. Guztia aldiz, erabakitze.


Inauterien aurretik, Santa Ageda bezpera

Igandea, otsailak 4, Santa Ageda bezpera izango da. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeetik eskea antolatu dute. Iluntzeko 18:00etan Kalezaroko zaintzadun etxebizitzan auzune berritik, Egurtzegi paretik abiatuko da herrian barrena egingo duten bira, "egunak eskatzen dituen jantzi, makila eta farolarekin". Hitzorduan, herritar orok parte hartu ahal du. "Ongietorriak izango dira bertso berriak, egun honetarako jarriak".

Elkargunea eraikitzeke parte hartze prozesua

Etorkizunean, anbulatorio ondoko belardian kokatu asmo duten Usurbilgo Elkargunearen egoitzaren funtzionamendua, balioak, espazioaren antolaketa, kudeaketa eredia, barne-antolaketa, izena... definitzeko parte hartze prozesua hastera doaz Elkarguneko eragileak.

Lehen saioa, asteburu honetan
Lehenengo saioa, larunbaterako, otsailaren 3rako iragarri dute, 10:00-13:00 artean Udarrigi ikastolako jangelan. Elhuyarrek dinamizatuko duen hitzordua, interesa izan dezakeen herrikide orori zuzendua dago. Espazio baten ga-beziak batu ditu Elkarguneko eragileak (kultur eragileak, aisialdikoak eta Udala), egitasmo honen bueltan.





Sortalde bultzatuko duen lehen autokontsumo instalazio kolektiboa Zubietakoa izango da.

Zubietako frontoia, autokontsumorako lehen instalazio kolektiboa

Sortalde Usurbilgo energia berriztagarrien komunitatearen aurkezpenak jende ugari erakarri zuen Suteگیرa. Egitasmoa aurkezteaz gain, Sortaldeko kideek eskuartean dituzten errokkak aurreratu zituzten. Zubietakoa izango da martxan jarriko duten lehen autokontsumo instalazio kolektiboa.

Sortalde sustatuko duen lehen egitasmoa autokontsumo instalazio kolektibo bat izango da, 114,45 kilowatt-ekoa. Eraikitako leku bat lehenetsi nahi zuten eta Zubietako frontoia izan da hautatu duten eraikina. Esleipena martxan dela jakinarazi zuten Suteگیرa aurkezpenean, Foru Aldundiaren dirulaguntza deialdira ere aurkeztu asmo dutela jakinaraztearekin batera.

Instalakuntza horri esker, frontoi estali honen bueltan, bi kilometroko eremuaren baitan geratzen diren eraikinek baliatu ahalko dute Zubietako gune zehatz honetan sortuko den energia. Zonalde horretan sartzen da Zubietako osorik noski, baita Txikiardi, Kalezar, Kaxkoa eta Santueneko zati

bat. Eguzki izpietatik elikatuko den instalakuntza hau, elikatzen ari den unean bertan, energia sortu ahala erabiltzea izango dela gomendagarriena azaldu zuten. Bertako energia baliatu nahi dutenen bizilekuan ez da instalakuntzarik egin behar. Zubietako frontoko teilatutik jasoko den energia baliatu nahi duenari zuzenduriko bazkide-tza kanpaina zabaltzen hasiak dira; gutxienez 120 bat batzea egokitzen jo zuten instalakuntza horren aprobeixamendu egokia egiteko. Kudeaketa kolektibo honek kostu aurrezketak dakarrela gogorarazi zuten.

Aholkularitza eta formazioa

Horrez gain, aholkularitza zerbitzua eskaintzea dute beste helburu nagusietako bat.

Momentuz, Potxoenean biltzen dira. "Tresna egokia da herria ahalduzko, energiaren gaia herriratzeko", Sortalderen sustatzaileek diotenez. Aste hasieran, Usurbilgo Udalak irekitako eta berriz martxan jarritako energia aholkularitza zerbitzuarekin lankidetzan aritu nahi dute, ahalik eta eremu gehienetara heltzeko.

Hala, fakturazioari edota energia eraginkortasunari buruzko argibideak eskaini edota energia ohituretan

"ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEKO JAIODA SORTALDE"

eragin nahi dute, baita energia sistemen berritzean, pobrezia energetikoaren gaian edota autokontsumoan, aipatu aholkularitza zerbitzu honen bidez.

Formakuntza saioak

Gai horietan guztietan egon daitezkeen gabeziei aurre egiteko formakuntza ere sustatu nahi dute.

Hasteko, negu parte honetan hasi eta apirila aldera arte, eguneroko kontsumoa hartuko dute hizpide nagusi gisa.

Udaberrian, mugikortasunaren gaia jorratu nahi dute. Kasu honetan, lanketarako hainbat kontu azpimarratu zituzten; hala nola, herrien arteko bidegorrien azterketa, autoa partekatze sistema, Udalak duen auto elektrikoaren erabilera sustatzea...

Azkenik, uda ostean, energia elektrikoaren gaiari heldu asmo diote.

"Zuek nahi zaituztegu partaide"

Sortalderi buruzko informazio gehiago sortalde.eus atarian jaso dezakezue. Webgune horretan bertan, Sortalderen proiektuen berri izan daiteke, sortu duten kooperatibako bazkidetza ere bertan, online bidera daiteke. Horretarako, aski izango da bertan esekia duten galdetegi betetzea.

Horixe dute hain zuzen, urte berrirako errokketako bat; "bazkide-tza areagotzea lehen proiektuak martxan jarri ahal izateko". Ildo horretan, Suteگیرa aurkezpenean ziotenez, "zuek nahi zaituztegu partaide, zuek izan zaituztegu". Komunitatean lan egin nahi dute baina "dena energiaren truke eman" gabe. Energia berriztagarriak sustatzeko jaioda da Sortalde, baina bilgunetik energia aurreztu eta kontserbatzea lehenetsi nahi dute; eta, ildo horretan, irabazi ekonomikoak helburu nagusi dituzten enpresen aurrean, beste oinarri batetik lan egin, bistan denez, herritik herriarentzat.



"Argindarraren fakturan dirua aurreztu daiteke. Guregana etortzen direnei azalduko diegu nola egin dezaketen".

"Argindarraren faktura ez da ulerterraza eta konpainiek ez dute asko laguntzen"

IOSU ROMERO ENERGIA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO TEKNIKARIA

Usurbilgo energia aholkularitza zerbitzua kudeatzeko, Udalak Iosu Romero gazte usurbildarra kontratatu du. Bere lanaren nondik norakoak azaldu dizkigu elkarrizketa honetan.

Dagoeneko martxan da energia aholkularitza zerbitzua Usurbilen. Lehen egun hauetan, zer nolako harrera izan du?

Lehen astean ez da jende gehiegi hurbildu baina honen funtzionamendua esponentziala izango dela iruditzen zait. Komunikazio lan bat egiten hasi gara (sare sozialetan, NOAUA...), dena den, ahoz ahokoak asko egin ohi du, eta horretan dugu esperantza jarria.

Argindarraren fakturan adibidez, dirua aurreztu daiteke. Hona etortzen direnei azalduko diegu nola egin dezaketen. Hori zabaltzen hasten denean, orduan hasiko da jendea guregana hurbiltzen.

Zeintzuk izango dira bulego honen zeregin nagusiak?

Energia bulego baten funtzioa beteko du. Gaiari lotutako edozein zalantza argitzeko gaude. Edozein dela zalantza, saiaturko naiz jendearen galderak argitzen. Akaso zalantza batzuk ezingo ditut momentuan erantzun, baina saiaturko naiz jendearen galderak ahal den moduan erantzuten.

Nagusiki argindarraren faktura argitzen saiaturko gara. Gaur egun, desinformazioa da nagusi. Energiaren inguruan azken urteotan piztu den krisiaren ondorioz, prezioak asko igo dira. Fakturak interpretatzeko heziketak

jaso ez dugunez, argindar konpainia asko egoeraz aprobetxatzen ari dira. Gauza asko aldatu dizkigute eta beharrezkoak ez ziren igoera asko eragin dituzte. Igoera batzuk krisiaren ondorio izan dira baina beste batzuk ez. Hori dena argitzen saiaturko gara.

"KONTUA DA INORK EZ DIGULA INOIZ FAKTURA BAT ULERTZEKO AZALPENIK EMAN. HORRETARAKO NAGO NI"

Aholkularitza lana egingo dugu.


Argindarraren faktura ulertzea ez da batere erraza. Ez da kasualitatea, ezta?

Ez da batere erraza eta konpainiekin dute asko laguntzen. Fakturan datozen adierazpideak ez dira batere garbiak. Baina sakontzen hasi, eta ez da hain zaila ulertzen. Kontua da inork ez digula inoiz faktura bat ulertzeko azalpenik eman. Eta ni horretarako nago. Kontzeptu bakoitzak zer nolako zentzua duen azaltzeko: "honek hau esan nahi du; hemendik hau ari zaizue kobratzen; beste hau ez da beharrezkoa pagatzea, beraz deitu eta aldatu...".

Bestetik, energia berriztagarriak bogan daude. Horri buruzko informazioa ere energia aholkularitza zerbitzuan eska daiteke? Instalazio motak, betebeharreko baldintzak, dirulaguntzak... Kasu honetan, zer nolako argibideak eskaintzen dituzue?

Ahal dudana egingo dut baina ni ez nago norberaren instalazio fotovoltaikoa dimentsionatzeko. Konpainia fotovoltaikoak herritarrari egin dion aurrekontua ulertzen lagunduko diot. Aurrekontua "puztuta" egon daiteke eta energia bulegoan aurrekontu hori egokia ote den ala ez egiaztatu dezakegu. Dirulaguntzei dagokionez, ia denak 2023an amaitu ziren. Dena airean dago une honetan. Zentzu horretan, ez dugu gauza handirik eskaintzeko. Dirulaguntza lerro berriak Europar erabakiko dira laster. Horiek Espainian arautuko dira eta ondoren EAera iritsiko dira. Eusko Jaurlaritzaren araudira egokitu beharko dira gero. Beraz, pazientziarekin hartuko behar da.

Zerbitzua doan da baina alde zuzenetik hitzordua eskatu behar da. Interesa duen herritarrak, nora jo behar du?



"Fakturak interpretatzeko heziketarik jaso ez dugunez, argindar konpainia asko egoeraz aprobetxatzen ari dira".

—> Ordua eskatzearena batez ere herritarren bisitak ordenatzeko ezarri dugu. Bide batez, aldez aurretik deitzeko eskatzen dugu, jendeari faktura ekar dezala gogorarazteko. Informazio zehatza eman ahal izateko, faktura ikusi behar dut.

Udaletxean eta Potxoenean atendituko duzu jendea, baina auzoetara ere hurbilduko zara.

Ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dugu, beharra dagoela iruditzen zaigulako. Eta zerbitzua herritarrei gerturatzeko asmoz, auzoetara ere hurbilduko gara informazioa eskaintzera. Usurbilen auzoak oso garrantzitsuak dira eta herritarrei erraztasun guztiak eman nahi dizkiegu.

Sortalde, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea osatu berri da. Osagarriak izango al dira biak?

Elkarlana bilatuko dugu. Ni Sortaldeko bilera askotan izan naiz eta gure arteko komuni-

kazioa zabalik dago. Herrian energiaren inguruan dauden behar guztiak asetu nahi ditugu. Dena den, Sortalderen inguruko xehetasunak nahi dituenak onena du Sortaldekoengana jotzea.

Energia teknikaria zara. Itxura batean, etorkizun handia duen ofizioa dela dirudi. Zuk ere inpresio hori al duzu?

Ez dakit zer esan. Nire lehen lan esperientzia haxe izaten ari da. Aurretik, praktikak eta horrelakoak lortzen saiatu nintzenez, pentsatzen nuen baina gehiago kostatu

zitzaidan. Etorkizun handiko lanbidea dela saldu ziguten baina ez dakit, akaso goiz da ezer esateko. Master bat egiten ari naiz eta oraingoz ez dut lan mundua asko ezagutzen.

Non ikasi zenuen zuk?

Nik energiaren ingeniarietza ikasi nuen Mondragon Unibertsitatean, Oronako erai-kinean (Galarretan, Hernanin). Karrera berbera Eibarren ikasi daiteke, EHUn. Masterra Bartzelonan egiten ari naiz eta energia berriztagarrietan espezializatua dago.

"HERRITAR GUZTIENGANA IRISTEKO XEDEZ, AUZOETARA ERE HURBILDUKO GARA INFORMAZIOA ESKAINTZERA"

"SORTALDEKO BILERA ASKOTAN IZAN NAIZ ETA GURE ARTEKO KOMUNIKAZIOA ZABALIK DAGO"

Energia aholkularitza zerbitzua

Iosu Romero klima eta energia trantsizio-rako teknikariak atendituko ditu herritar-rrak. "Zerbitzuhon bidez, batik bat, argindarraren fakturei buruz zein energia berriztagarri buruz sor daitezkeen zalantzak argitu ahal izango ditugu". Egoitza udaletxean du baina auzoz auzo eskainiko du bere zerbitzua. Doakoa da, baina hitzordua eskatu behar da.

Udaletxean:
Asteartetik ostiralera, 09:00-13:00.

Herri-auzoetan:
Astelehenean, 09:00-13:00 / 16:00-19:00.

- Zubietan (Kaxkapen): hilabeteko lehen astelehenean.
- Santuenean (auzo elkartearen lokalean): hilabeteko bigarren astelehenean.
- Aginagan (Eliza Zaharrean): hilabeteko hirugarren astelehenean.
- Kaxkoan: hilabeteko laugarren astelehenean, 09:00- 13:00 udaletxean; 16:00-19:00, Potxoenean.

Hitzordua hartzeko:
943 37 19 51
iromero@usurbil.eus

ARANKA BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



Orbeldi Dantza Taldekoak, duela bi urteko Inauteri Jaian. Aurtengo kalejiran Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Kantu Taldeak hartuko dute parte.

Orbeldik herri inauteria aldarrikatuko du

Orbeldi Dantza Taldea urtero arduratu izan da inauteri jaietako larunbat goizeko dantzaldiaz eta bezperako kalejiraz. Aurten ere egun horietan eurekin dantza egiteko aukera izango da, baina berrikuntza nabarmenekin: Urde eta lagunak izango ditugu herrian.

Orbeldi Dantza Taldearekin inauteri bezperan herriko kaleetan barna kalejira egiteko aukera izan ohi da, bai eta larunbat goizetan haurrei zuzendutako dantzaldia ere. Aurten ere, kalejira izango da ostiralean eta dantzaldia larunbat goizean, baina adi, bi ekitaldietan izango baitira berrikuntzak.

Ostiraleko kalejirak protagonista berriak izango ditu eta larunbat goizean, frontoian dantza egin beharrean karroza batekin herriko kaleak hartuko dituzte dantza taldekoek.

Urderen etorrera

Ostiral arratsean, otsailaren 9an, zazpitan kiroldegitik abiatuko dute kalejira herriko hainbat txokotako bidea hartuta. Dantza taldekoek urtero euskal dantza ziklo bat hau-

tatu ohi zuten Euskal Herriko txoko ezberdinetakoa eta inauteri girokoa eta dantza horiek erakusten zituzten kalejiran. Aurten, ordea, ohiko ideia aldatu eta beste zerbait egitea erabaki dute: Usurbilen sortutako herri inauteri propioa.

Inauteri propio hori sortzeko, herriari lotutako pertsonaia batzuk sortu dituzte eta protagonista nagusia izango dena: Urde. Pertsonaia hau eta beste hainbat kalejiran aterako dira kiroldegitik ostiral arratsaldean. Kalejira horretan, herriko edonork parte hartzeko aukera izango du dantzatu eta kantatzeko aukerarekin. Herri inauteri batzuk sortzeko lehen zertzelada modura prestatu dute ekitaldi hau Orbeldi Dantza Taldeak Zumarte Musika Eskola eta

Usurbilgo Kantu Taldearekin batera.

Urde ez da inauterietako pertsonaia berri bakarra izango. Lagun izango ditu Usurbilgo zuzenean lotuta dauden lau pertsonaia gehiago: anguleroak, zakuzaleak (Udarregi Ikastolan haur txikiak moztortzen diren gisako pertsonaia), lamiak eta harrapariak. Pertsonaien argazkiak Orbeldi sare sozialen bidez erakutsiko ditu aste honetan herri-

URDE EZ DA USURBILGO HERRI INAUTERIEKOKO PERTSONAIA BERRI BAKARRA IZANGO; LAU LAGUN DITU

tarrek pertsonaia irudikatu ahal izateko.

Abeste-ko aukera ere izango da Kalejiran pertsonaia horiekin topo egiteko aukera izango da, eta Usurbilgo Kantu Taldeak ere ekitaldi honetan parte hartuko duenez, euskal dantzak egiteaz gain, abeste-ko aukera ere izango da. Mozorrotuta agertzeko deialdia egin dute ekitaldi honetarako Orbeldiko kideek.

Karroza herrian barrena

Larunbat goizean frontoian egin ohi duten dantzaldiak ere berrikuntzak izango ditu. Izan ere, aurten ekitaldia ez da frontoikoa izango; herrian barna egindako kalejira baizik. Karroza bat prestatu dute Orbeldiko lagunak eta herrian ibiliko dira denetariko musikarekin goizeko 11:30etik aurrera. Ekitaldi honetarako tradizioari protagonismoa kenduko diote eta estilo askotako dantzak egingo dituzte. Azken urteetan koreografia ugari prestatu dituzte eta horiek ere lekua izango dute, bai eta euskal dantzek ere.

Ekitaldi honetan txikiak izango dute protagonismoa, nahiz eta kalejira herritar guztientzat egokia izango den.

"Asko zur eta lur geratu ziren karrozarekin"

Azken urteetan, geroz eta karroza gehiago eta harrigarriagoak ikusteko aukera izaten da inauterietan herriko kaleetan. Urtetik urtera mozorro landuagoak prestatzen dituzte zenbait lagun kuadrillak. Noaua! haietako batekin izan da aurtengo asmoak eta sekretuak ezagutzeko.

Joan zen urteko ideia eta karroza deigarrienetakoa egin zuen jarraian aurkeztuko dugun kuadrillak. Zinema gaitzat hartuta, Up pelikula famatuko haurraren pertsonaia hautatu zuten mozorrotzeko eta puxikei esker hegan egiten duen etxea irudikatu zuten karrozarekin.

NOAUA Ideia originala eta ikusgarria ekarri zenuten plazara joan ziren inauterietan. Zer esan zizueten ingurukoek eta herritarrek?

Lagun eta inguruko askok bazekiten inauteri jaia baino lehen, zertaz mozorrotuko ginen eta karroza bat egingo genuela ere bazekiten. Hala ere, jendeak ez zuen espero horrelako karroza handia egingo genuenik. Etxe txiki bat espero zuten puxika pare batekin. Herrira iritsi ginenean, asko zur eta lur geratu ziren karrozaren neurriarekin eta ez zuten sinesten ikusten zutena. Ez zuten espero ez hain handia izaterik, ez horrenbeste globo koloretsu izaterik ere. Asko gustatu zitzaizkien karroza eta mozorroa.

Egun hartan zein izan zen zuen plana? Zer duzue gogoan?

Herrian atera eta ondo pasatzea zen gure asmo nagusia. Oso oroitzapen onak ditugu musika jarri eta jende asko dantzan jarri genuelako eta guk geuk ere oso ondo pasatu genuen. Kuadrillako guztiok elkartu eta bazkari eder bat ere egin genuen.

Karroza handia prestatu zenuten joan zen urtean globoek frontoia hartzen zutela. Aurten ere zer-



'Up' filmaz mozorrotu zen kuadrilla hau joan zen urtean.

bait azpimarragarria prestatu duzue edo prestatzekoak zarete?

Oso harro gaude joan zen urtean egin genuen lanarekin eta emaitza polita lortu genuela uste dugu. Puxikek kolore eta xarma handia ematen diote karrozari, baina aurten ez dugu puxikarik izango. Aurtengo inauterietarako mozorroa eta karroza prestatzen hasi gara jada, baina uste dugu joan zen urtekoa gaintzea oso zaila izango dela. Saiatuko gara, hala ere, lan pixka bat egin eta zerbait polita egiten.

Fauna izango da aurtengo Usurbilgo inauteri festako gaia. Gai hori jarraituko duzue edo bakoitza nahi duen modura joango al da?

Badira bi urte kuadrilla osoak gai bat hautatzen dugula eta aurten ere bide horretatik jarraituko dugu. Gure ustez, karroza eta kuadrillako mozorroa sortzeak politago egiten du eguna eta balio gehiago ematen dio mozorroari. Aurten nahiko justu gabiltza denboraz eta gustatuko litzaziguke datozen urteetarako.

"PUXIKEK XARMA HANDIA EMATEN DIOTE KARROZARI, BAINA AURTEN EZ DUGU PUXIKARIK IZANGO"

ko herriko gaia lehenago aukeratzea.

Idea komun bat hartuta, Up pelikula, kuadrillako mozorroa egin zenuten. Aurten ere fauna gaiaren barnean azpigai komun bat eramango duzue kuadrillako guztientzat berdina izango dena?

Bai, fauna gaitzat hartuta denok berdintsu joatea erabaki dugu. Hasieran ideia bat baino gehiago izan genituen eskuartean, baina azkenean ados jartzea lortu dugu, ez baitzaigu bakarka mozorrotuta ibiltzea gustatzen. Denok ideia jakin bat jarraituko dugu eta antzeko jantziko gara.

Aurreko urteetan, gogoan duzuela, zertaz mozorrotu izan zarete?

Bi urte daramatzagu taldean mozorrotzen. Lehenago bakoitza nahi zuen bezala mozorrotzen zen eta ez genion gaiari kasurik egiten. Pandemia garaian erabaki genuen karroza bat egin eta denok mozorro bera eramatea. Duela bi urte 1 Formulako auto bat egin genuen eta mekanikoz mozorrotu ginen gu. Ideia asko gustatu zitzaigun eta joan zen urtean ere esperientzia errepikatzea erabaki genuen.

Aurtengo Inauteri Jaian ere zerbait berezia egin nahi dugu eta mozorroa jada erabakita daukagu. Karrozaren ideia ere jada gutxi gorabehera prest daukagu.

Zein da zuen aurtengo inauterietako plana (bazkaria bai/ez, Usurbilen mozorrotu eta nora-bait joan...)?

Goiz eta eguerdi aldera kalera aterako gara musikarekin eta giroa jartzen ahaleginduko gara poteo txiki bat egin bitartean. Ogitartekoren bat bazkalduko dugu kalean eta arratsaldean poteoarekin jarraituko dugu. Gauerako sagardotegia hartu dugu lasai afaltzeko; hortik aurrerakoak ikusi beharko.



Urtarrilaren 25ean egindako urtarrileko osoko ohiko bilkura.

Legealdiko Planaren aurkezpena

120 neurriko Legealdiko Plana aurkeztuko du EHBildu buru duen udal gobernu taldeak ostiralean, otsailaren 2an. 2023-27 urterako plangintza herriratzeko ekitaldira joateko deia egin dute; "bidea elkarrekin" egiten segitzeko.

Duela lau urte egin bezala, ekainean abiarazi zuten 2023-27 legealdirako plana aurkeztera doa Usurbilgo EHBilduko kideek osaturiko udal gobernu taldea. Udal gobernu taldeko kideek plangintza hau herriratzeko aurkezpen ekitaldia iragarri dute otsailaren 2rako, arratsaldeko 18:00etan Zumarte Musika Eskolako goiko solairuan, ganbaran hain zuten. "Legealdiko Plana zereginak antolatzeko dokumentu bat da, udaleko langileek zein ordezkari politikoek erreferentzia gisa izan dezaten:

osatu ere, elkarlanean osatu dute".

"Usurbiltzen" segitzeko deia
Orotara, 120 neurri bildu dituzte plan horretan, "Usurbil bizigarriagoa, zaintzaileagoa, jasangarriagoa eta berdinzaleagoa eraikitzen jarraitzeko; hitz batean esanda, Usurbiltzen jarraitzeko", herrikide eta eragileen arteko lankidetzatik; "elkarlanerako gonbidapena ere egin nahi izan die herritarrei, "bidea elkarrekin, usurbildar guztiekin, egiteko gonbidapena".

Ostiral honetan emango dituzte ezagutzera 2027. urtera arteko Legealdiko Planari buruzko xehetasunak. Hiru ardatz nagusi izango dituela aurreratu du Usurbilgo udal

**2023-27
LEGEALDIKO
PLANA: "OROTARA,
120 NEURRI BILDU
DITUZTE PLAN
HORRETAN"**

gobernu taldeak. "Batetik, udal-gobernuak 2023ko maiaztzeko hauteskundeetan aurkeztutako herri programa. Bestetik, aurreko legealditik datozen proiektuak eta orduan onartutako plan estrategikoak. Azkenik, udal-langileek zein hautetsiek udazkenean egindako lan-saioetan egindako aparteko ekarpenak. Guztiak jaso eta antolatu dituzte, Aztikerren laguntzarekin", azaldu dute udal gobernu taldeak.

Osoko bilkura

Datozen lau urteotako Legealdiko Plana aurkeztu aurretik, azkenekoz iragan urtarrilaren 25eko osoko bilkuran ikusi genituen udal gobernu taldeko kideak. Diru kontuak izan zituzten hizpide saio hartan. Batetik, 2023. urteko laugarren eta azken hiruhilekoko ordainketen batzbesteko epea eta exekuzio maila zertan ziren adierazi zuten. Egoera oso ona dela eman zuten aditzera udal gobernu taldeak. Izan ere, legeak ezarritako 30 eguneko epearen oso azpitik da Usurbilgo Udalaren ordainketen batzbesteko epea. Urritik abendurako kontuen exekuzio datuak ere ahotan hartu zituzten. Halere, jardun urte bakoitzari itxiera ematen dioten behin betiko datuak aurrerago izango ditu eskuartean udal gobernu taldeak. Orduan, zenbakion "irakurketa zuzenagoa" egiteko moduan izango direla jakinarazi zuten iragan asteko osoko bilkuran. Udalbatzar hark izan zuen bestelako berezitasunik ere. Saioa bideratu zuena, bertan egoterik izan ez zuen Agurtzane Solaberrietaren alkate funtzioak bere gain hartutako alkateorde Ainhoa Arrozpide Landa izan zen.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

INAUTERIAK 2024

OTSAILAK 9-10 USURBIL
GAIA: FAUNA

OSTIRALA

19:00 kalejira
Kiroldegitik abiatuta

URDEREN ETORRERA.

Mozorrota eta etor
zaitz gurekin
Usurbilgo inauteriaz
gozatzera!

LARUNBATA

11:30 Mozorro dantza-
kalejira kiroldegitik abiatuta!

12:30 - 14:00 **JOALDUNAK**
kalean zehar

18:00 **BURRUNBAZALE**
txarangarekin kalejira.

22:30 **ITZAL erromeri**
taldearen emanaldia frontoian

IRISASI BTT, IRUDITAN



Irisasi BTT hasieran dozenaka lagun Mikel Laboa plazatik ateratzen.



Bi lagun menditik bueltan herrira itzultzen.



Bi lagun eskua emanda, helmugara iritsi berritan.



Txirindulariak helmugara iritsita hamaiketako egiten.

A colorful graphic for the 'OTSAILAK 16-25 KULTURALDIA 2024' event. The text is written in large, bold letters. The background features a vibrant, multi-colored mandala pattern. On the right side, there is a logo for 'Usurbilgo Udala' and the 'noaUA' logo with the website 'www.noaUA.eus' and social media icons for Instagram, Twitter, and Facebook.

Eskubaloiaz gozatzeko eskola gaztetxoentzat

Eskubaloia eskola iragarri du Usurbil Kirol Elkarteak Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko gaztetxoentzat. Hilero bi saio egin asmo dituzte, eskubaloia ezagutarazi, jarduera honetaz gozatzea sustatu eta eskubaloia taldeen bilgunera jokalariei berriak erakartzeko.

Belaunaldi berria eskubaloira erakarri, kirol jarduera hau sakonago ezagutu, zaletuz gero klub barruko dinamikan murgilarazteko aukera eskaini eta orain arteko katean etenik ez izatea. Usurbil Kirol Elkartetik eskubaloia eskola iragarri dute hurrengo hila-beteotarako Oiarde kiroldegian. Lau mailatako ikasleei zuzenduriko ekimena da honakoa; LH 3. mailan hasi eta 6. mailara arte, tarte horretan dauden herriko gaztetxoentzako.

Jokalariei gabezia iraultzeko Kirol elkarte honetara heldu daitekeenari aurre hartu nahi diote. Izan ere, batetik, haurren jaiotza-tasa murriztu da azken urteotan eta horren isla da, jada belaunaldi gazteenean jokalariei kopuruan sumatzen ari diren murrizketa. Bestetik, eskolaz kanpoko aisialdi eskaintza zabaldu da urteotan eta hori ere nabaritu dute Usurbil K.E.-n. "Jokalariei gabezia ikusten ari gara. Geroztik eta zailtasun gehiago ditugu taldeak osatzeko", adierazi diete aipatu bilgunetik NOAUA!ri.

Egungo egoera zertan den argitzen duten datuok eskaini dizkigute kirol elkartetik. "Aurten infantiletan talde dezente ditugu, baina alebiletan 6-7 jokalariei. Hurrengo denboraldira begira, infantiletan talde gabe gera gaitezke", ohartarazi dute. NOAUA!ri zehaztu diotenez, "aurten, jubentzetan mutiletan talderik ez dugu, baina beste maila guztietan bai. Infantiletan, mutiletan



lazio eskubaloia kanpuseko gaztetxo eta begiraleak. ARGAZKIA: USURBIL K.E.

eta nesketan bi talde. Hurrengo denboraldian, ordea, mutil guztiak mailaz igoko dira, kadeteetara. Nesketan talde bakarra geratuko litzateke infantiletan", azaldu dute Usurbil K.E.-tik.

Eskubaloiaz gozatzea

Horregatik, pixkanaka parte hartzaile kopuruan izandako murrizketa iraultzeko, garai bateko errendimendu saioak berreskuratzea erabaki dute. Hitzorduotan, "eskubaloia ariketa ezberdinak egingo ditugu. Eskubaloian zentratuko gara baina ez jarduera honetan soilik, talde jolasak ere egingo ditugu", iragarri dute. Guztia, helburu argi batekin; "Haurrek eskubaloiaz gozatzea,

kiroldegiko bizipen onak izatea eta horrekin jende gehiago erakartzea", dute xede nagusi, adin ezberdinetako kideen arteko laguntasun harreman berriak eraikitzea bultzatzearekin batera. Dinamizetarako, gainera, herrian haien kirol ibilbidea hasi eta gerora maila gorenean lehiatzen ari diren eskubaloia joka-

**USURBIL K.E.:
"GEROZ ETA
ZAILTASUN
GEHIAGO DITUGU
TALDEAK
OSATZEKO"**

lariak eskola honetara ekartzen ere ahalegindu nahi lukete.

"Bukatzeo penaz"

Hilabeteotan abiarazi nahi duten eskolak badu aurrekaririk. Izan ere, iazko udan, ekaina amaieran estreinakoz eskubaloia "kanpusa" antolatuz zuten, gaztetxoak udako oporraldian murgildu berrian. Lauzpabost egunez Usurbil Kirol Elkarteak antolatutako dinamizetara parte hartzeko aukera izan zuten. "Zoragarria izan zen. Oso ondo pasa genuen bai umeek eta begiraleek", nabarmendu dute eskubaloia taldeen bilgunetik. "Bukatzeo penaz" zirela oroitzen dute. Deialdiak aurreikuspenak gaintu zituen antolatzaileen esanetan. "Ez genuen espero hainbeste jende etorriko zenik", Usurbil K.E.-koen esanetan. Artikulu honi erantsitako irudikoak dituzue ekimenean parte hartu zuten gaztetxo eta begiraleak. Aurtengoan ere esperientzia errepikatu asmotan dabilta uda partean.

Doan

Aurrerago zehaztuko dute saioen egutegi zehatza. Usurbil K.E.-tik aurreratu dutenez, hilero bi igandeetan eskaini nahi dituzte eskolak, 12:00-13:15 artean. Doakoak izango dira saio hauek guztiak, aipatu moduan LH 3, 4, 5 eta 6 mailatako ikasleei zuzendurikoak. Ez da alde aurretik izena eman behar, Oiarde kiroldegiko txartela izatea aski izango da. Saioak hasi baino bost edo hamar minutu lehenago kiroldegi atarira joateko deia egin dute eskubaloia taldeen bilgunetik eskolan parte hartu nahi dutenei. "Gogotsu etortzea" nahikoa izango dela nabarmendu dute antolatzaileek, "zenbat eta haur gehiago, hobeto", prestatuko dituzten dinamizetarako egoki bideratu ahal izateko. "Gu prest izango gara haurrek ahalik eta ondoen pasatzeko. Dena emango dugu".



Jontxu hil zeneko lehen urtemugan, senideek eta lagunek egin zioten omenaldiko argazkia.

Jontxu Rock, itzali gabeko izarra oroitzeko

Hil zenetik hamar urte bete diren honetan, Jon Uribe Navarro oroituko dute bere lagunek larunbaterako antolatu dioten Jontxu Rock ekimenaren bidez. Omenduak hain maiteak zituen herriko musika taldeak, egungoen eta aspaldikoen topagunea izango da hitzordua hau.

"Ni Jon, ni jefe". Ez zuen aurkezpen gehiagorik behar le-rootako protagonistak, haren lagunetako batek egunotan NOAUA!ri gogorarazi dion moduan. Halaxe agertzen zen, Usurbilgo musika talderen batekin herritik kanpora kontzertua eskaintzera joan eta tokian tokiko antolatzaile eta teknikariek hartuemanetan jartzea egokitzen zen unean. Berak aurkezten zituen gero, atzetik zetozen taldekideak. Esaldi horrekin bakarrik, irribarre batekin gogoratuko dugu askok Jon Uribe Navarro "Jontxu". Hain zuzen, bere nortasuna agerian uzten zuten hitz horiek irakurtzearekin batera hamaika oroitzapen berrituko dituzue zuetako askok, baita Usurbildik kanpoko beste hainbatek ere. Izan ere, non ez zituen lagunak Jontxuk.

Herriko taldeen bilkura

Urtarrila hasieran Uribe zendu zela hamar urte bete ziren. Arrasto sakona utzi zuen usurbildarrak bizi izan zen artean, hil berritan eta baita gerora ere. Ikuspuntu askotatik, bere bizitzaz nabarmentzeko moduko pasarte asko daude, baina bazuen biziki estimaten zuten zaletasun bat; musika, eta gogokoen, herriko taldeak. Hala, gogoan izango duzue, kontzertu gau batekin amaitutako egunpasa ederrarekin oroitu zuten bera zendu zeneko lehen urtemuga; bosgarrenean, kontzertu gau itzela antolatu zion auzokide zuen Kalezarko Jai Batzordeak, herri-kirol, bazkari eta bertso saio baten ostean. Urtarrilean, hamar urte beteko zirela ez ziren ahaztuak bere lagunak eta iaz hasi ziren antolaketa

lanekin. "Herriko taldeak bildu nahi genituen, ondo pasatzeko egun bat izateko helburuz". Halaxe antolatu diote larunbaterako, otsailaren 3rako, Jontxu Rock, Uribe hain maiteak zituen herriko musika talde hainbaten kontzertu gaua, bere omenez.

Jarraitzaile sutsua

Izan ere hartueman estua zuen Jontxuk Usurbilgo sortzaileokin. "Lokaletako talde guztien nagusia zen. Oso estimatua genuen", oroitu digute larunbateko omenaldiaren antola-

"BERAK BERE BURUA AURKEZTEN ZUEN, NI JON, NI JEFE ESANEZ"

tzailleek. Aipatu moduan, ez bakarrik entsegu saioetan, herriko musika taldeen baretan hortxe izaten zen. "Papertxo batean idazten genion non zen kontzertua. Amari erakutsi eta hara zihoala esaten zion. Etxetik atera eta bueltatzen zen, bueltatzen zenean", oroitu digute irribarre batekin Jontxuren lagunak. Mendeku Itxua taldearen jarraitzaile sutsua zen kalezartarra. "Ia kontzertu guztietara etortzen zen. Batzuetan berandu jotzen genuen eta urruti. Horregatik, apropos ez genion esaten kontzertua genuela. Halere, inork ez dakigu nola baina jakin egiten zuen eta Bordatxoko biribilgunean itxaroten zigun. Handik pasatzen ikusten gintuenean asko haserretzen zen", gogorarazi digu pasarte umortsu hau, Menduko Itxua taldeko kide Ixak Arrutik. Halere, ia beti joaten zen beraiekin. "Bere etxera joaten nintzen. Bere amak esaten zidan, Jon ari zait esaten zerbait kontzertu bati buruz. Nik azaltzen nion bere amari nora gindoazen, zer ordutan zen kontzertua eta zer ordutan etorriko zen etxera eta gurekin etortzen zen".

Taldearen managerra

Une horretan oroitu digu, emanaldiaren tokira iritsita zer gertatzen zen. "Kontzertu lekura iritsi orduko, furgonetatik irteten ginen. Jon gure aurretik joaten zen teknikariei eta antolatzaileei kasu egitera. Berak bere burua aurkezten zuen, "ni Jon, ni jefe" esanez". Taldearekin zuen hartueman estuaren adierazgarri, duela hamar urte Jontxuri egin zitzaion azken agurrean soinean zeraman kamiseta Mendukurena zen. Ildo beretik, musikarion zaintzaile gisa definitu digu larunbateko omenaldiko antolatzaileetako batek. "Denok ondo pasatzea nahi izaten zuen, baina musikarion materiala zainduta. Baten bat edanda gerturatzen bazen, lehenengoa bale esaten zuena

→ bera zen. Nahi zuenean, oso arduratsua zen".

Herriko ikurretako bat

Hamar urte bete dira Jontxu zendu zenetik. Zer nolako arrastoa utzi digun galdetuta, argi dio Ixakek. "Usurbilek altxor asko ditu eta haie-tako bat zen Jon, dudarik gabe, zen bezalakoa izateagatik. Denokin ibiltzen zen, herri osoarekin. Hamaika bizipen ditugu herritar askok. Herri-tik kanpoko hainbatek ere ezagutzen zuten". Larunbateko omenaldiaren antolakuntzatik ere ildo beretik mintzatu zaizkigu. "Herri baten izena aipatzerakoan, herri horretako irudi hainbat datozkigu. Usurbil esan eta Jon herri honetako irudieta-ko bat da. 33 urterekin hil zen, baina jende askori mar-katu zion pertsona izan zen. Denon bihotza irabazi zuen eta hori gutxik esan dezake-te".



Jontxu eta irribarrea biak ala biak bat eginik, omenaldietako bateko irudian.

"Nahi zuena lortzen zuen"

Bere hurbiltasuna eta harre-mantzeko abilezia nabarmen-du digute, Jontxuren nortasun ikur gisa. "Jon beti ibili zen denekin. Berak denekin ger-tutasun hori izatea lortu zuen. Beste herri batera joan eta harritu egiten ziren".

Pentsatu eta ekiten zion herrikide gisa deskribatu di-gute. "Jon beste bide parale-lo batetik zihoan pertsona zen. Bizirik segi izan balu are gehiago sakonduko zuen bide horretan, berak hala nahiko zuelako. Oso independentea zen. Nahi zuena lortzen zuen. Argi izaten zuen zer nahi zuen eta egin egiten zuen". Unean unekoa bizitzeko zuen gaita-suna nabarmendu du baita Ixakek. "Jonek zerbait egiten

bazuen zera zen, bizi eta go-zatzea".

Familiari eskertza

Denboraren joanak Jonen arrastoa eraldatu ote duen ere galdetu diegu. "Oroitzapen mugagabe baten modukoa da. Presente egoten segitzen du". Ildo beretik, Ixakek adierazi digunez, "arrastoa handitzen doa denbora igaro ahala. Orain, kontzienteago gara Jon benetan nolakoa zen eta mugak

nola gaintitu zituen. Jon bes-te bat gehiago zen. Hala hazi eta hezi zuten. Oso garrantzi-tua da hori", oroitu digu Ixa-kek. Omenaldia hain zuzen, nola ez, Jontxuri berari zuzen-dutakoa izango da, baina bai-ta bertaratu nahi duten lagun, herrikide eta hurbilekoentza-ko ere; "Jon gertukoa sentitu zuen orori eta batez ere fami-liakoentzat. Jon halakoa iza-tearen arrazoi nagusia familia zen, Joni zen modukoa izaten

uzteagatik". Horregatik, la-runbateko hitzordua, "fami-liari eskertza egiteko" ere baliatu nahi dute. Bide batez, "ingurukoak eta musikariok biltzeko aitzakia ere izango da". Gonbita egina dago, beraz. "Ederki pasako dugu Jonen izenean. Bera ere seguru asko hortxe egongo da irribarre batekin nonbaitetik begira. Animatzen den oro ongi eto-rria izango da", adierazi digu-te Jontxuren lagunek.

"Jontxuk lortu du berea"

Ekimen honen berri emanda, antolatzaileek nabarmendu dutenez, herriko taldeak "se-gituan animatu ziren ome-naldira. Batzuk penetan gera-tu dira ezin izango direlako hor egon. Beste talde batzuk Jontxu omentzeko soilik itzu-liko dira. Ikusten? Orain ere Jontxuk lordu du berea". Uri-bek hain gogoko zituen hain-bat kanta joko dituzte taldeek, tartean, Ixakek berak omen-dua hil berritan bere agurre-rako sortu zuena. "Jon oroi-tuko dut beti irribarre batekin, nioen abesti hartan. Egia da, bera oroitu eta irribarrea da-torkit". Kontzertu iluntze honen aurretik, musikariak, antolatzaileak eta Jonen se-nideak Patri jatetxean bildu-ko dira bazkaritarako. Jate-txekoei eta senideei lerroon bidez eskertza helarazi nahi diete Jontxuren lagunek.

Jontxu Rock

Otsailak 3, larunbata
19:30ean hasita Herriko hain-bat taldeek bere omenezko kontzertua eskainiko dute Mikel Laboa plazan: Kezka, Elektropapo, Izeberg, Viafara, Ameba eta Odolaren Mintzoa akustikoan.

"ORAIN KONTZIENTEAGO GARA BENETAN NOLAKOA ZEN"

"BERA ERE SEGURU HORTXE EGONGO DA IRIBARRE BATEKIN"

ARRANDEGIA
PELLO
 9:00-13:30
 ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Inaki Iturgintza
 BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
 ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA
 • Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
 • Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarreak....
 www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
 Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867

USURBIL DÖNER KEBAB
 843 675 265
 603 609 183
 USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5



Aginagako parke eraberritua. "Espazio ireki, jasangarri eta lasaia irabazi du Aginagak", sustatzaileen esanetan.

Aginaga irisgarriago eta seguruagorantz

Aginaga erdiguneko espazio publikoa berrantolatze prozesu batean dira herritarrak eta Udala. Eraldatze bide horretan, dagoeneko begi bistakoak dira zenbait aldaketa; parke ingurua berritu eta herrira ireki dute, oinezkoak lehenestearen aldeko apustua egitearekin batera.

Herrikide guztientzako irisgarria izango den Aginagaren eraikuntzan urrats garrantzitsua eman dute egunotan. Kaxkoko plaza berrantolatze fase batean dute. Egun, eskola orduetan adibidez, eremua erabileran oinezkoen joan etorriak lehenesteko neurriak hartu dituzte. Frontoiaren ertzetako batean, orain arteko eremu berean parkea aurkituko dugu, baina goitik behera eraberrituta. Egurrezko egituradun hainbat jolas jarri dituzte oreka eta desoreka lantzea ahalbidetzen dutenak, orain arteko hesirik gabe eta lehen baino adin tarte zabalagoari zuzendurikoa. Izan ere, 3-14 urte artekoentzako izango da parke eraberritua. Nabaritu dute hobekuntza. "Azken aldian haur eta gazte txoak denak batera ikusten

dira, handiak txikiei laguntzen. Hori da eskolaren benetako izaera, elkar laguntza". Hainbat aulki jarri dituzte bueltan, elementu naturalekin batera. "Espazio ireki, jasangarri eta lasaia irabazi du Aginagak", proiektu honen bultzatzaileen esanetan. Bukatzeke dute, elementu gehiago jartzekotan dira, plaza itxuraldatzen segitzaerekin batera.

Haurren begirada

Aipatu moduan, espazio publiko hau berrantolatzen ari da eskolako komunitatea, bertako haur, gazte zein helduak, Aginagako herria alegia, Usurbilgo Udalarekin lankidetzan. Elkarlan hau gorai patu dute. "Hau da komunitatea egiteko adibide eredu-garria, espazio publiko komunitatearen bidez konpon-

tzen joatearena". Tartean, bereziki haurrak nola hartu diren kontuan nabarmendu nahi dute. "Lehenengo begirada haurrengan jarri da. Haurren parkeari lehentasuna eman zaio eta, horregatik, herriari eskerrak eman behar zaizkio. Hor ikusten da komunitate baten indarra".

Parkeari dagokionean, garai batean eskola atarian zegoena gerora frontoira lekuz aldatutakoa zen. Zaharkitua zegoela aipatu digute egitasmo honen sustatzaileek, elementuak zaharkituak eta puskatuak

"ESPazio IREKI, JASANGARRI ETA LASAIA IRABAZI DU AGINAGAK"

zituena, itxiturak haur txikienei bideratua egotea sustatzen zuten. "Zerbait egin beharra zegoen, ez zen segurua". Hor-tik sortu zen gunea konpontzeko beharra bideratzeko lantaldea. Gunea berritzeko diseinu lanei ekin zieten, proposamen ezberdinen bueltan, baina jolastoki honetaz haragotago, "Aginagako plaza berre-raiki nahi zen", herriarekin batera, Kaxko seguruagoa, irisgarriagoa izateko norabidean. "Badira arazo batzuk oraindik, egunen batean konpontzea espero ditugunak. Ea hala, horrek ahalbidetzen duen hau dena oinezkotu eta denontzako espazio libre eta irekia izatea".

Elutx eta Kaxkoa lotzeko

Helburu hau, denen irisgarritasun eta segurtasuna bermatzea ez da gaurkoa aipatu digutenez; orain arte egindako lanketa testuinguru horretan kokatu dute. Eremua oinezkotzeak, plaza ibilgailuek hustea ekarriko du, baina aparteko arazorik sortu gabe. Izan ere, hiru aparkaleku publiko ditu Aginagak; bat Elizaren parean, hilerrira igotzeko bidean kokatua dagoena; bigarrena, Aginaga sagardotegikoa; eta, azkena, Maioze-nekoa.

Ibilgailua utzi eta oinezkoak lehenetsiko dituen Aginaga eraiki nahi dute. Orain arte, N634 errepideak zatitu izan du herria. Pixkanaka, Elutxen eraikitako bide eta berdegunearekin eta Kaxkoan bideratzen ari diren berrantolaketa lanekin, etorbide seguru bat eraiki nahi dute, Kaxkoa inguruekin lotuko duena.

Ate irekiak

2024-25 ikasturtera begirako aurrematrikulazio kanpaina ireki bezperatan, otsailaren 3rako ate irekien saioa iragarri dute Aginagako eskolakoek. Nahi duenak eskolako azpiegiturak eta proiektua ezagutzeko aukera izango du 10:30-12:30 artean.



Euskal Sagardoa egin duten sagardotegiak 50 izan dira.

Aurtengoa "sagardo aromatikoa da, oso lurrintsua"

2023ko uztarekin 12 milioi litro inguru sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian. Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren egiaztapenarekin ekoiztutako sagardo litro kopurua, 4 milioi litrokoa izan da.

Euskal Sagardoa egin duten sagardotegiak 50 izan dira: arabarrak 2, bizkaitarrak 3 eta gipuzkoarrak 45. Euskal Sagardorako sagarra egiten duten sagargileak 250 dira eta guztira ia 500 hektarea erabiltzen dira horretarako. 2023 uztan, 6 milioi kilo sagar

bildu dira Euskal Sagardora-ko.

Sagar barietatearen arabera, sagastiaren zonaldearen arabera eta sagardotegi bakoitzaren arabera, aurtengo txotx boladan dastatuko ditugun sagardoak ezaugarri ezberdinak izango dituzte. "Hala ere, orokorrean, iazkoarekin alderatuta, alkohol graduazio eta gorputz txikiagoa dute sagardoek, eta oso lurrintsuak dira", Sagardo Route-etik aditzera eman dutenez.

2022ko uzta baino handiagoa izan da 2023koa

2023ko uzta aurrekoa baino handiagoa izan da kopuruz. Aurreko urtean uzta txikia izan zen eta 2023an handiagoa espero zitekeen. Uzta handia izan da, baina urriko beroek zerbait murriztu dute sagar kopurua.

Hogeita hirugarren urtez jarraian, irailaren hasieran kontrol bat egin zen Fruitel eta Sagardoaren Lurraldearen artean Gipuzkoako sagasti batzuetako sagarren egoera ezagutzeko. Horretarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu eta 14 barietate kontrolatu ziren: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Sagar uztaren ezaugarriak:

- Iazkoekin alderatuta, heldutasuna aurreratuago etorri da almidoiaren erregresioari begiratuta, baina aldi berean azukre maila baxuagoa izan du.
- Azukre maila aztertuz, aurtengo urteak batzaz beste 10,6 oBrix izan ditu. Aurreko urtean baino 1,2 puntu baxuagoa izan da, eta 2021 urtean bezalako. Barnealdeko sagastietan datu hori altuagoa izan da.



Sagar kopuru handiagoa jaso zen 2023an.

- Almidoiaren erregresioa 3,4-ko indizean egon da; hau da, aurreko urtean baino 0,6 puntu altuagoa izan da, eta 2021 urtea baino 0,4 puntu altuagoa.
- Aipatzeakoa da lurrera erori den sagar kantitate handia, ziurrenik udazkeneko haizeen ondorioz. Erorketa hori Txalaka, Mozolua eta Gezamina barietateetan nabarmena izan da.
- Heldutasun datuak ikusita, eta almidoiaren erregresioaren arabera, Goikoetxe barietatea kenduta hiru barietate talde izan dira:
 - Aurreratuena: Patzolua, Mozolua, Gezamina, Urtebi Txiki, Aritza eta Urdin.
 - Erdikoak: Txalaka, Manttoni, Verde Agria eta Urtebi Haundi.
 - Atzeratuena: Errezila, Moko eta Udare Marroi.

Sagardoaren sektorea, "kalitatearen alde lanean"

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016an hasi eta urtero errepikatutako dirulaguntza deialdiak baliatuz, 123.7 hektarea landatu dira. Makinariari dagokionez, dirulaguntzetan 213.660,54 euro onartu dira, eta sagastien landaketarako, guztira 1.881.995,95 euro. Hau da, 2016an hasita, dirulaguntzetan 2.029.743,09 euro onartu ditu Foru Aldundiak.

Produktuaren kalitatearen hobekuntzan, sektoreak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Fraisoro Nekazaritza Kalitateko eta Berrikuntzako Laborategia dauka. Gaur egun, merkatuan dauden Euskal Sagardoa nahiz Gorenak bi kalitatezko marken, eta marka hauek gabeko sagardoan azterketa fisiko-kimikoak nahiz zentzumen-analisiak

egiten dira bertan. Laborategiak sagardogile guztiei ematen die zerbitzua, hortaz.

4.069 lagin aztertu ziren iaz

2023ko datuak aurreko urtearen antzekoak izan dira eta Fraisoro Ingurumen eta Nekazaritza Laborategian 4.069 lagin aztertu ziren fisikoki eta kimikoki (muztioak, hartidura prozesuan zeuden sagardoak, ontziratzeko puntuan zeuden sagardoak...). Era berean, zentzumen-analisiari dagokionean, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturara nahiz Gorenak zi-

gilura bideratutako sagardo naturalaren 478 bat lagin dastatu ziren 2023. urtean.

Fraisoro, erreferentzia

Villabona-Amasako Fraisoro Laborategia Estatu osoan sagardo naturalerako akreditatua dagoen dastaketa gune bakarra da. Urtero ENAC (Egiaztatze Erakunde Nazionala) entitateak ikuskatzen du bertan egindako azterketen kalitatea eta azterketa horiek zentzumen-analisen arauetara egokitzen diren egiaztatzeko.



Hezkuntza Sailak aditzera eman duenez, "oso garrantzitsua da familiek ahalik eta ikastetxe gehien hautatzea, dagokien ikastetxea ahalik eta gehien egokitu dadin euren interesetara".

Berrikuntzak aurrematrikulazio kanpainen

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak otsailaren 7an irekiko duten 2024-25 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainaren xehetasunak ezagutarazi zituzten aste hasieran.

Iaz hartutako neurriek indarrean segiko dute baina "onarpren-prozesuak berritasun aipagarri batzuk dakartza". Tartean, "plaza eskuratuko dutela neba-arreba bizikide bat matrikulatuta dagoen ikastetxean hasierako maila eskatzen dutenek (2 urteko gelan, edo, halakorik ezean, 3 urteko gelan). Ikastetxe bakarra duten udalerrri edo eragin-eremuetan bizi diren eskatzaileek ere eskuratuko dute plaza, ikastetxe bakar horretarako eskabidea aurkezten badute".

Bestalde, bereziki anai-arreba bikien kasuei eragingo dieten beste neurri berri bat ere iragarri du Eusko Jaurlaritzak. "Ikastetxe bereko sarrera-mailan bi neba-arrebak edo gehiagok egindako aldi bereko es-

kaerei buruzkoa da. Kasu horietan, baremoak 6,5 puntu ematen dizkio neba-arreba horietako bakoitzari".

Neurriberrihauezagain, "2024-2025 ikasturterako onarpren-prozesu berri honek iaz abian jarritako berritasun eta neurri sortarekin jarraituko du. Gizarte eta hezkuntza ikuspegietatik hezkuntza-sistema orekatzearen alde egiten duten neurriak dira, eta inklusibotasun-irizpide nabarmena dutenak. Ezartzeko prozesu progresiboa denez, aurten 3 urteko geletarako onarpenera ere hedatu dira neurriok (iaz 2 urteko geletarako aplikatu ziren)".

Ikastetxeen hautaketa

Horien artean, segregazioa saihesteko "diru publikoarekin

sostengatutako ikastetxe guztiek gorde beharko dute Hezkuntza Sailak zehaztutako plaza kopurua, ikasle zaurgarriak eskolatzeko". Bestalde, familiek betetako inkestetan jasotako informaziotik "definituko da zein ikasle hartuko diren zaurgarritzat". Hala, "era honetan, zona bakoitzerako Zaurgarritasun Indize erreferentziala zehazten da, ikastetxe bakoitzean ikasle zaurga-

**HEZKUNTZA SAILAREN
ESANETAN, "OSO
GARRANTZITSUA DA
FAMILIEK AHALIK ETA
IKASTETXE GEHIEN
HAUTATZEA"**

rrientzat erreserbatu beharrekoko plaza kopuruarekin batera".

Haurrak non matrikulatu hautatzeko irizpideari dagokionean, aurten ere "familia bakoitzak bere eragin-eremuko ikastetxe guztiak hautatu ditzake seme-alabak eskolatzeko, edo beste eremu batzuetakoak, mugakideak izan edo ez, kopuru-mugarik gabe, egokitzen jotzen dituzten hezkuntza-baldintzak betetzen dituztenen artean. Beren interesen arabera lehenetsiko dituzte". Aurrematrikulazio kanpaina familiek lehenetsitako ikastetxea "eskaintzen saiatzen da eta hautatutakoetan eskolatzeko aukerarik ez balego bakarrik eskainiko litzakete beste ikastetxe bat, markatutako ezaugarriak izango lituzkeena eta ikaslearen bizilekutik hurbil legokeena. Horregatik, oso garrantzitsua da familiek ahalik eta ikastetxe gehien hautatzea, dagokien ikastetxea ahalik eta gehien egokitu dadin euren interesetara".

Baita gertuen dagoena ere. Aurten kasu berri bat aurreikusitako dutela jakinarazi dute. "Eskatutako ikastetxea (publikoa zein pribatu itundua) ikaslearen bizilekutik hurbilen dagoena izatea, baina ez eragin-eremuaren barnean kokatua, baizik eta eragin-eremu mugakide batean".

Informazio gehiagorako

Zubietako eskola

- 943 372 931
- 012219aa@hezkuntza.net
- zubietako@eskolatxikiak.org

Aginagako eskola

- Ate irekien jardunaldia: otsailak 3, larunbata, 10:30-12:30.
- 943 372 044
 - aginaga.eskolatxikiak.org

Udarregi ikastola

- Ordutegia: hitzordua eskatzeko, deitu aurrez ikastolara.
- 943 36 12 16
 - usurbil@ikastola.eus



"Ekintzez beteriko programa zabalaz gozatzeko aukera izango dugu". ZIORTZA

Ziortzaren irteerarako izen-ematea ostiral honetan amaituko da

Apirilaren 2tik 4ra Zarauzko Igerain aterpetxean elkarbizitza saioa antolatu du Ziortzak LH5 eta 6 mailakoentzat.

Ziortza gazte elkarteak aditze-
ra eman duenez, hiru egun horietan, "ekintzez beteriko programaketa zabalaz gozatzeko aukera izango dugu. Beraz, elkarbizitzan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, primeran pasako dugu".

Aurreko urtean antolatutako ekintzak arrakasta handia izan zuenez, elkarbizitza saio berri bat antolatu du Ziortzak datorren Aste Santuari begira. Hori bai, aurtengoan "gure aisialdi eskaintza LH5 eta LH-6ko gazteei zabaltzea erabaki dugu".

Izen-ematea ostiral honetan amaituko da

Izen-ematea egiteko epea urtarrilaren 29an ireki zen eta ostiral honetan (otsailaren 2) amaituko da. "Beraz, izena eman nahi baduzu, sarean eskegi duten galdetegia bete behar da". Argazkiaren ondoan erantsi dugun QR kodea baliatuz iritsiko zara galdetegi horretara.

Plaza mugatuak direnez, "eskaintako guztiak betetzean, ondoren izena ematen dutenek elkarbizitzara etortzeko auke-

rarik ez lukete izango. Plazak izen ematearekin batera esleituko dira; hau da, ez da zozketarik burutuko".

Behin epea itxi eta gero, izena eman duten gaztetxoek gurasoekin bilera bat egingo da. Bertan informazio gehiago helaraziko dute Ziortzakoek. "Irteera eta itzulera orduak, eraman beharrekoak eta abar".

Elkarbizitza ariketa

- Noiz: Apirilaren 2tik 4ra.
- Non: Igerain aterpetxean (Zarauz).
- Nori zuzendua: LH5 eta LH6ko gaztetxoei.
- Informazio gehiago: ziortzakanpaldia@gmail.com
- Prezioa: gazte bakoitzeko, 65 euro. "Bi gau eta otorduak barne (lehenengo eguneko bazkaria etxetik eraman behar da)".
- Garraioari dagokionez, "baliteke garraio publikoa erabiltzea aterpetxera gerturatzeko. Kasu honetan, kostu honen ardura ez luke Ziortza Gazte Elkarbizitza hartuko". Honi buruzko xehetasunak aurrerago emango dituzte.

Aitzaga, 30. urtemugako ospakizunetan

Hasteko, Ameba herriko taldearen kontzertu akustikoaz gozatu ahal izan zuten urtarrilaren 26an, Aitzaga atarira gerturatu zirenek. Malen Azpiazu, Jon Mikel Azpiazu eta Haritz Zabaleta hirukoteak girotu zuen afalurreko poteo ordua, haienak dituzten abestiek. Kontzertu hau, ekainera arte luzatuko den zikloaren abiapuntua izan da. Honatx datozen deialdien berri:

"30 urtez hegaldean"

Otsailak 2, ostirala

- 21:00 Barrikotea Aitzaga elkartean.



Ameba zuzenean, Aitzaga aurrean.

- Menua: baratxuri eta ganba nahaskia, bakailua piper eta tomate saltsarekin, saiheskia, postrea, kafea eta kopa.
- Sarrera: 20 euro.

Ekainera arte...

- Hilero ekimenak.

Ekainak 1, larunbata

- Egun osoko jaialdia: bazkaria, kontzertuak...

Telebista, soilik bereizmen handian ikusgai

Lurreko Telebista Digitala (LDT) bereizmen handian (HD sisteman) baino ezingo da ikusi otsailaren 14tik aurrera. SD edo bereizmen estandarreko telebista kateak ikusteari utziko diogu datozen asteotan. HD sisteman ikusteko prestatuak dauden telebisten kasuan, kateak berran-

tolatu baino ez dira egin behar; agian, kasu batzuetan, zenbait kate berriro sintonizatu ere bai. Telebista ikusteko bi sistema hauen artean dagoen ezberdintasuna, hobekuntza da. HD bereizmen handiko irudia kalitate hobegokoa da, baita soinua ere.

Helduen Hezkuntza Iraunkorrean matrikulatzeko azken egunak

Ikasturte hasieran egin zuten moduan, erdibide honetan ere berriz zabaldu du matrikulazio epea 18 urtetik gorakoei zuzenduriko doako Helduen Hezkuntza Iraunkorrek; otsailaren 2ra arte hain zuzen. Oinarriko kultur formakuntza eskaintzen dute; DBHko titulua eskuratzeko moduluak edota gela digitalak (hiritartasun digitalerako tailerrak). Izena emateko aurrez hitzordua eskatu behar da, telefono zenbaki hauetara deituta: 943 37 64 43/943 366 608.

Ugartondoko auzokonpostean izen-emateko aukera

Izen-emateko epea otsailaren 9an itxiko da. Horretarako, bideok daude: atezate@usurbil.eus / 606 501 024 / udalategiko atez ateko bulegoan. Izen-ematerakoan, nork bere izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta etxe bakoitzeko lagun kopurua zehaztu behar du. Organikoa Ugartondon bertan konpostatu nahi duten bertako bizilagunei zuzendua dago deialdi hau. Talde bat osatzeko aukera eskaini nahi die Udalak.



Beharrezko neurriak hartzeko deia egin zuen LAB sindikatuak. ARGAZKIA: NOAUA

Berriki Aginagan izandako lan-istripua salatu dute

Lan-istripu gehiagorik ez dela nahi eta prekariatateak langileak hiltzen dituela salatu zuten aurreko asteko elkarretaratzean.

Urtarrilaren 9an Aginagan izandako lan-istripua salatzea zuen xede nagusi LAB sindikatuak deituriko elkarretaratzeak. Izan ere, "langile bat larri zauritu zen Viuda e Hijos de Jeronimo Izaguirre, S.L. enpresan". Beste ezer baino lehen, "besarkadarik beroena" helarazi nahi izan zieten, baita "elkartasuna eta babesa zauritutako langileari, gertuko eta senideei". Deitzaileek elkarretaratzearen amaieran nabarmendu zuten moduan,

"ahalik eta azkarren eta ondorio larririk gabe osatzea da gure desio eta itxaropena".

Neurriak hartzeko deia

Lan-istripua izandako enpresako langileak, larriki zauritutakoaren hurbilekoak, udal ordezkariak edota hainbat herrikide bildu zituen mobilizazioa, ordea, salaketa argi bat plazaratzeko baliatu nahi izan zuten. "Beste behin ere, lan-baldintzek eta prekariatateak gaixotu eta hiltzen gai-

tuztela salatu nahi dugu". Izan ere, urtea hasi zenetik 25 egun baino igaro ez diren honetan, hamar dira lan-istripuetan Euskal Herrian zendutako langileak. Kontuan izan, iaz, 2023. urte osoan 59 izan ziren hildakoak. Askoz gehiago, noski, larritasun maila ezberdinean zauritutakoak. "2024. urte honetan, 10 dira Hego Euskal Herrian lan-istripuz hildako langileen zerrenda-beltza luzatzen dutenak eta beste asko izan dira antzeko gertakietan zaurituak", LAB sindikatutik elkarretaratzean salatu zuten.

Horregatik, beharrezko neurriak hartzeko deia egin zuen aipatu sindikatuak. "Dei egiten diegu bai enpresei, bai prebentzio arduradunei eta bai administrazio publikoei, antzeko gertakizunak gerta ez daitezkeen neurriak hartzen".

Usurbilgo motorzale bat zendu zen Azpeitian izandako istripu batean

Jon Berloso Zenteno usurbildarra aurreko larunbatean hil zen, Azpeitian izandako istripu baten ondorioz.

GI-631 errepidean gertatu zen ezbeharra, Azpeitia eta Zestoa artean, Zumarragarako noranzkoan. Motorzale bat bidetik atera zen. Larrialdi zerbitzuetakoak istripua izan-

dako eremura gerturatu zirenean ez zuten ezer egiterik izan. Gidariak zituen zauri larriak tarteko, ezbeharra izandako lekuan bertan hil zen.

Urte berriko lehen hilabetea amaitu aurretik, dagoeneko hiru dira Gipuzkoako errepideetan izandako istripuetan zendutakoak. Haietatik bi

motoristak. Azkena Usurbilgo bizilaguna da; Jon Berloso Zenteno. 44 urte zituen. Urola Kostako motozaleen elkarteko kidea zen Berloso. Sare sozialen bidez, omendu nahi izan dute: "Lagun maitea, behar baino lehenago utzi gaituzu. Jakin ezazu beti gure artean egongo zarela. Orain, zauden lekuan zaudela atsedean hartu lasai eta bide onenetik gida gaitzazu. Betira arte txapel-dun!".



Trenbide ondoko bidea itxita

Geltoki berriko lanak tarteko, trenbide ondoko bidea itxita egongo da bolada batean. Lanak amaitu bitartean, ordezkoko bide bat ahalbidetu dute geltokira iristeko.

Adi, tren geltokira gerturatu asmo duzuenok. Izan ere, aspartetik itxita dago trenbide ondoko bidea. Horren ordez, bide alternatibo bat ahalbidetu dute trenbidera heldu ahal izateko. Aurrerantzean hortaz, ordezkoko bide horretatik egin beharko dira joan-etorriak.

Udalaren hainbat dirulaguntzetan eskaerak aurkezteko garaia

Argitaratu berri diren dirulaguntza gehientsuenen kasuan, eskaerak aurkezteko epea otsailaren 16ra bitartekoa izango da; beste batzuen kasuan, epea luzeagoa da.

Usurbilgo Udalaren hainbat dirulaguntzaren oinarriak eta deialdiak urtarrilaren 19an argitaratu ziren GAO Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hainbat sailtakoak: hirigintza, tokiko garapena, kultura, gi-zarte zerbitzuak eta kirola.

Guztien kasuan, urtarrilaren 22an ireki zen eskaerak aurkezteko epea, eta gehientsuenen kasuan 16ra bitartean eskatu ahal izango dira; beste batzuen epeak, berriz, luzeagoak dira. Ohi bezala, eskaerak egiteko bi modu daude: udal-txan aurrez aurre edo zerbitzu telematikoen bidez.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

LAN ESKAINTZAK

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaeren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsalde aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

BESTELAKOAK

Sudadera beltz bat galdu zaigu. Astelehenean frontoian zegoen. M tailakoa, olatu baten irudi txuria du aurrean. Aurkituz gero, deitu: 671673920.

Belarritako bat aurkitu genuen kaleari, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu: 607 168 352.

Futbola

Otsailak 3, larunbata

Haranen

- 9:00 Infantil neskek: Usurbil FT-Sporting de Herrera
- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil FT-Internacional CD
- 12:15 Kadete neskek: Usurbil FTB-Ostadar SaiarreKT
- 15:30 Erregionalak: Usurbil FT B-Trintxerpe CD B
- 17:45 Jubenil preferenteak: Usurbil FT-Lengokoak SD B

Otsailak 3, larunbata

Haranetik kanpo

- 10:15 Infantil mutilak: Hernani CD-Usurbil FT B
- 15:30 Kadete neskek: Lagun Onak CD-Usurbil FT
- 15:45 Kadete mutilak: Urki CD B-Usurbil FT
- 19:30 Jubenilak: Hernani CD C-Usurbil FT B
- 19:30 Preferente neskek: Antigua Luberrri-Usurbil FT

Otsailak 4, igandea

Haranen

- 10:00 Kadete mutilak: Usurbil FT B-Internacional CD
- 12:00 Futbol Eskola: Usurbil FT-Euskalduna

Otsailak 4, igandea

Haranetik kanpo

- 17:30 Preferente mutilak: Touring KE B-Usurbil FT

Pilota

Otsailak 2, ostirala, 17:45

- Kadeteen 3. maila: -Pagazpe (Jauregi-Indakoetxea) -Behar zana 2
- Kadeteen 1. maila: -Pagazpe 2 (Aburuza-Errasti) -Tolosa 3
- Infantilen 3. maila: -Pagazpe -Gazteleku3

Otsailak 3, larunbata, 11:30

- Infantil 2. maila: -Pagazpe (Alejo-Atorrasagasti) -Intza 2

HILDAKOAK



Isidora Borrezo Mendez
Urtarrilaren 24an hil zen, 86 urterekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 04	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 05	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteartea, 06	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 09	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 11	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Eskubaloia

Otsailak 2, ostirala

- 20:00 Senior neskek: Usurbil KE-Ereintza

Otsailak 3, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil KEA-Pulpo Eskubaloia

- 11:15 Infantil neskek: Usurbil KE B-Irauli Eskubaloia

- 17:00 Kadete mutilak: Usurbil KE-Hernani Onddi

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitze gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 02

USURBIL Legealdiko Planaren aurkezpena

"2023-2027" Usurbilgo legealdi planaren aurkezpena.
18:00etan Zumarteko ganbaran.

USURBIL Aitzagak 30 urte: barrikotea

Menua: baratxuri eta ganba nahaskia, bakailua piper eta tomate saltsarekin, saiheskia, postrea, kafea eta kopa. 20 euro.
21:00etan Aitzaga elkartean.

LARUNBATA 03

USURBIL Usurbilgo Elkargunea eraikitzeke parte hartze prozesua

10:00-13:30 Udarregi ikastolako jangelan.

USURBIL Jontxu Rock: 10. urteurrena

Kezka, Elektropapo, Izeberg, Viafara, Ameba eta Odolaren Mintzoa taldeen eskutik.
19:30ean Mikel Laboa plazan.

IGANDEA 04

USURBIL Haurrentzako zinea euskaraz: "Ainbo: Amazoniako gerraria"

17:00etan Sutegin.

KALEZAR Santa Ageda bezperako kantu-jira

Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berritik abiatuko da.
18:00etan Egurtzegin.



'Ainbo, Amazoniako gerraria' du izena igande honetako filmak.

Igandean, haurrentzako zinea euskaraz

Usurbilgo Udalak Ziortza gazte elkartearekin lankidetzan haurrentzako euskarazko film bat eskainiko du igande honetan, otsailak 4, arratsaldeko 17:00an hasita Sutegin. 'Ainbo, Amazoniako gerraria' du izena igandeko filmak.

Sarrerak alde aurretik eskuratu ahalko dituzue, 3,20

eurotan, usurbilkultura.eus plataformaren bitartez.

'Ainbo: Amazoniako gerraria' filmak heroi epiko baten zeharkaldia azaltzen du, Amazoniako herri indigenen bizi-eremuan barrena egiten duena. Mezu ekologista garbia dakar, natura neurritz kanpo ustiatzen dabiltzan horien aurrean".

Jaiak prestatzeko lehen bilera

Usurbilgo Jai Batzordeak lehen bilera deitu du, antolaketa lanetan parte hartzeko gogoz izan nahiz ospakizun egun horietan ekimenik programatu asmo duten norbanako nahiz eragileentzat. Lehen bilera, otsailaren 6a, asteartea, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean. Lehen zereginetako bat, jai egunak zeintzuk izango diren finkatzea izango dute.

Inauteri Jaia, begi-bistan

Inauteri Festa

Otsailak 9, ostirala

• 19:00 'Urderen etorrera', Orbeldiren ikuskizuna. Kiroldigitik abiatuta kalejira.

Otsailak 10, larunbata

• Gaia: fauna.
• 11:30 Mozorro dantza-kalejira Kiroldigitik abiatuta.
• 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.
• 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
• 22:30 Itzal erromeri taldea frontoian.
• Antolatzaileak: NOAUA!, Orbeldi, Zumarte eta Usurbilgo Joaldunak.

Korrika Kulturalako lehen hitzordua

23. Korrika girotzen hasteko lehen hitzordua, otsailaren 14rako iragarri dute 18:30ean Potxoenean; Iñaki Iurrebasoren "Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?" hitzaldia.



AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



Otsailaren 3an
ate irekiak
10:30-12:30



·2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

·Jantoki zerbitzua, bertako ostatuan sukaldatua.

·Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

·Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

·Baratza: Auzokoek, familiek eta eskolak jorratzen duten eremua; uzta ekologikoa sustatuz.

·Eskola orduz kanpoko kirola.

·Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: otsailaren 7tik 23ra

9:30etik-16:30tara



AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net



Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- Hezkuntza Integrala: Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen- eritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **Zirimara Proiektua** (eskola kirola eta aisialdia).
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

56 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Otsailaren 7tik 23ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus